



HITZARTZEA / INTERVENCIÓN

Garbiñe Aranburu: “Posible egin dezagun Euskal Herrian Madrilen posible ez dena”

Garbiñe Aranburu: “Es aquí, en Euskal Herria, donde tenemos que hacer posible lo que no es posible en Madrid”

Gora langile borroka! Gora LAB!

Pandemiaren fase berrian sartu gara. Aldaketa handien garaia. Lan, pentsio, bizi baldintzetan eragina izango duten aldaketak. Ez dugu ezarriko dituzten erabaki berrien zain geratu nahi, eragin egin nahi dugu. Eragin, dagokiguna eskatzeko.

Borrokarik gabe ez dugu eragingo. Presio sindikal eta soziala areagotzeko momentua da. Horretan ari gara. **Su gainean, su ez-tian lapikoa bor borboka ari da, greba eta mobilizazio ziklo berri bat sukaldatzen ari gara.**

Borrokarako arrazoiak pilatzen ari dira. Politika neoliberal eta autonomistak ez dira berriak. Prekarizazioa eta pobretzea bizitzaren eremu guztietan zabaltzen ari zitzagunean, aldaketak eragiteko ofentsibara pasa eta aurreko Greba Orokorrekin Euskal Herriko langile borrokan mugarri berri bat jarria genuen. Eta **iragarri genuen udaberri gorria! Pandemiak zapuztu zuen bidea, gris ilun bilakatu zen udaberria.**

Pandemian handitu egin da Kapitala–Bizitzaren arteko arrakala. **Osasuna eta zaintza** hain beharrezkoak ziren momentuan, bizitza sostengatzeko ezinbesteko lanak zein diren agerian geratu zen. Ez da osasungintza sistema publikoa indartzeko erabakirik hartu edo ez da egon zaintza lanak aitortu, berrantolatu eta zaintzaileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko inolako borondaterik egon.

Ziklo berrirako, kapitalismoa bere burua berrantolatzen ari da. Berriro ere ikuspegi produktibista eta androzentrikoa. Kapitalismo berdea, eslogan hutsa da. Krisi klimatikoari ezin zaio erantzun egokirik eman produkzio eta kontsumo eredua aldatu gabe, etengabeko hazkundearen mitoa zalantzan jarri gabe.

Kapitala–Bizitza arrakala horietan sakontzeko bidea dira Europako Funtsak. Enpresa handiek eredu produktiboan egin nahi dituzten aldaketak diru publikoz finantzatzeko bidea. Funts horien onuradun izango da, esaterako, **argindarraren prezioaren eskandaluzko goraka eragin duen oligopolio energetikoa.**

Madrilen, langileontzat garrantzitsuak diren gaien eztabaida irekia dago. PSOE–



HITZARTZEA / INTERVENCIÓN

PODEMOS Gobernuak lan erreforma bertan behera uzteko **asmoa adierazi bai, urratsik eman ez, ordea**. Erreforma bertan behera uzteko eginiko akordio politikoak ere ez ditu bete. CEOE patronalaren hitzak eta beto eskubideak pisu handiegia du. Parean, estatuko sindikatu nagusiek ez dute aldaketak eragiteko behar den presio sozialerako gaitasunik. **Pentsio publikoak** bermatuzetik urrun, murrizketa berriak datoz. Erretiro adina atzeratuz edota pentsio pribatuei aukera berriak zabalduz.

Aurrekontuak diseinatzen ari da Eusko Jaurlaritza. Confebasken bozeramaile bat gehiago den Arantxa Tapia andereak argi utzi ditu lehentasunak, ez osasungintza, ez hezkuntza, ez gizarte zerbitzuak. Dirua enpresetara. Inolako kontrol politiko eta sozialik gabe eta enplegua bertan mantentzeko konpromisorik eskatu gabe. Diru publikoa enpresa handien irabazietara, muxutruk!

Begi bat Madrilen jarria dugu. Ez dugu zuzeneko eragin gaitasunik, irekia dagoen Elkarrizketa Sozial markoan, euskal langileen interesak ez daude ordezkatuak. **Euskal alderdiei, euren indarra azken urteetako erreformak indargabetzeko eta murrizketa berriei ateak ixteko baliatu dezaten dei egiten diegu**.

Baina ez gaitezen Madrilen egosten ari denari begira geratu. Euskal Herritik eta Euskal Herrirako mobilizazio ziklo berri bat behar dugu. Herri honen historiak erakutsi duen moduan, **aldaketak Euskal Herrian borrokatu behar ditugu, ezkerretik, soberanismoetik edo ez da aldaketarik izango**.

Orain da garaia Euskal Herritik eta Euskal Herrirako Greba Orokorra deitzeko! Posible egin dezagun Euskal Herrian Madrilen posible ez dena. Euskal Herrian borroka dezagun, Jaurlaritza eta CONFEBASK, Nafarroako Gobernu eta CEN presionatzeko eta langileen mesedetan izango diren erabaki eta politika publikoak garatzeko.

Sobran razones para abrir un nuevo ciclo movilizador, sobran razones para una nueva Huelga General. Una huelga con la mirada puesta en Madrid, sí, una huelga con el claro objetivo de incidir en las decisiones de Madrid, sí, pero una huelga, sobre todo, desde y para Euskal Herria.

Durante los últimos años hemos demostrado que **tenemos mucha fuerza y mucho coraje**. Euskal Herria es un pueblo que lucha. **No nos han asimilado como pueblo, ni tampoco como trabajadores y trabajadoras**. El sistema no nos ha asimilado, no han conseguido integrarnos en un modelo de concertación social nada fructífero para las y los trabajadores.

Y esta esencia propia de la realidad sociosindical ha posibilitado que dentro del marco estatal, con un autogobierno limitado y sin capacidad de decisión, las condiciones laborales y de vida de las y los trabajadores de Euskal Herria, gracias a la lucha, sean mejores.



HITZARTZEA / INTERVENCIÓN

Esa es nuestra seña de identidad y ese es el mayor quebradero de cabeza de Confebask. Como señalan sus portavoces, el clima sindical de aquí se ha convertido en su principal preocupación.

La patronal tiene un palo muy gordo en la rueda para seguir **destruyendo empleo y extendiendo la precariedad. Ese palo somos nosotras y nosotros, somos el sindicalismo de cocontrapoder.** Y no vamos a cambiar, tenemos la determinación de seguir siendo la pesadilla de esta patronal que solo entiende de unilateralidad y de imposición.

Como decía, con la mirada puesta en Madrid queremos incidir en las decisiones de Madrid, pero es aquí, en Euskal Herria, donde tenemos que hacer posible lo que no es posible en Madrid.

Hagamos posible un Acuerdo Intersectorial que establezca un salario mínimo de 1.400 euros, hagamos posible complementar las pensiones hasta los 1.080 euros, hagamos posibles acuerdos que eliminen la brecha salarial o acuerdos de reducción de jornada.

Hagamos posible cambiar las prioridades presupuestarias, aumentar la inversión que se destine a sanidad y educación. Hagamos posible dar nuevos pasos para crear un sistema público comunitario de cuidados. Hagamos posible la no destrucción de empleo o la consolidación del empleo público.

La movilización es el camino y nunca ha sido fácil el camino que hemos elegido. **Kapitalismoa antidemokratikoa baita: zigorra du bitza duina eta justizia eskatzen dugunontzat eta inpunitatea, injustiziarentzat.** Indarkeria patronala da langileak esplotatzea, indarkeria patronala dira laneko gaixotasunak, indarkeria patronala da astero astero langileak hiltzea, indarkeria da borroka sindikal eta sozialen kriminalizazioa eta epaiketak. Egun hauetan epaitegietara bidean zareten langileoi, zuekin gaude, borroka sindikala aurrera! Txalo bat!

Amaitzeko, dei bat egin nahi dizuet hemendik. Bihur daitezela txalo hauek bultzada eta indar kolektibo, aldaketa sozialak eta aldaketa politikoak borrokatzen jarraitzeko. **Bultzada eta indar kolektibo** Greba Orokorrerako bidea egiteko.

Greba Orokorrerako platera sukaldatzen eta sukaldatzen ari garen platerari azken ukitua falta zaio. Horretarako prestatzen ari garen platerak **gatz apur bat gehiago behar du, ilusioaren gatz.** Gaur hemendik ilusio, gogo, motibazio, konfidantza eta indar horrekin atera behar dugu. Irekitzen ari garen mobilizazio ziklo berriak emaitzak emango dituen ziurtasun osoarekin **bagoaz Grebara:**

- Bagoaz Grebara: **Irekiak** ditugun borroka sindikal eta sozialei babesa eta bultzada berri bat emateko. **Etorkizunean** borroka gehiago pizteko baldintza berriak sortzeko



HITZARTZEA / INTERVENCIÓN

- Greba Orokorrak bestelako herri mugimenduekin elkarlana sustatzeko aukera ere ematen digu; pentsionistak, mugimendu feminista, gazteak, migranteen eskubideen defentsan ari direnak...

- Bagoaz Grebara, Madrilen eta Eukal Herrian eragin asmoz, **Patronalari eta bere menpeko Gobernuari** abisu argi bat bidaltzeko. Badakigu zer esango duten: ez dela grebarako momentua, ez dela ezer lortzen. Orduan eta erasokorrako ageri dira, orduan eta eragin gehiago dugun seinale

Gatz ale asko behar ditugu, langileekin egin behar dugun bidea da hau, eskuz esku, beraien kezka eta beharrak erdigunean jarriz, zerbait handia egiten ari gara eta horren parte sentiaraziz. Ilusioaren gatza olio orban moduan zabalduz. Horretarako **zuek zarete sindikatuaren altxorra**. Jarrai dezagun ongi egiten duguna egiten. Jarrai dezagun LAB hitza eta ekintza dela erakusten.

Gora langileon borroka! Gora LAB!

Bilbon, 2021eko irailaren 29an